



**ctb**

bizkaiko garraio partzuergoa  
consorcio de transportes de bizkaia

**Bizkaiko Garraio Partzuergoak prozedura hasi du %50eko deskontua aplikatzeko BARIK txartelarekin edo bonuekin egiten diren bidaietan**

**Abenduaren 28ko Errege Lege Dekretua aztertu ostean, BGPk gaur bertan onetsi du, ezohiko kontseiluan, egungo deskontua beste urtebetez aplikatzea.**

Bizkaiko Garraio Partzuergoaren (BPG) Kontseilu Nagusiak gaur bertan erabaki du, ezohiko bileran, bidaiarien garraio publikoko tarifei hobaria aplikatzeko prozedurari hasiera ematea. Neurri horrek urtebete iraungo du eta horri esker % 50eko deskontua aplikatuko da aldi baterako bonoekin ordaindutako bidaietan (Bidai 50, Bidai 70, Bidai Oro, Gazte 70 eta Gazte Oro) eta Barik txartelarekin (Creditans eta Gizatrans) ordaindutakoetan.

BGPren Kontseiluaren ezohiko bilera ahalik eta azkarren egin da, hain zuzen ere joan den ostegunean, abenduaren 28an, argitaratutako 8/2023 Errege Lege Dekretuaren edukia aztertu ostean, zeinak ezartzen baitu bidaiarien garraio publikoko prezioen murrizketa luzatu egingo dela.

Bidaia-txartelen prezioaren gaineko deskontua aplikatuko da behin BGPk aplikatu beharreko ordenamendu juridikoan ezarritako administrazio-izapideak beteko direnean. Horretarako, neurria jendaurrean jarriko da 30 egun baliodunez, BGPk herritarren alegazioak jaso ditzan.

Jendaurrean jartzeko izapide hori bete ostean, eta herritarrek aurkeztutako alegazioak ebatzi ondoren, BGPk berehala aplikatuko ditu deskontuak urtebetez, neurri hori indarrean jartzen denetik aurrera zenbatzen hasita. Deskontuak BGPk araututako prezio guztietan aplikatuko dira, bai eta Bidai eta Gazte aldi baterako bonoetan (garraio-operadorea edozein delarik ere) eta metroko 1, 2 eta 3 lineen Creditans eta Gizatrans tarifetan ere.

Gogorarazi beharra dago BGPren Kontseilu Nagusiak abenduaren 26an egindako bileran zera onetsi zela: % 50eko aldi baterako deskontua aplikatzeko aldia (abenduaren 31n amaitzen zena) urtarrilaren 13ra arte luzatzea, bai eta bonuetan egiturazko % 20ko deskontua aplikatzea ere. Horiek horrela, datozen asteotan, jarraian jasotako taulan adierazitako ehunekoak ordainduko dituzte erabiltzaileek:



bizkaiko garraio partzuergoa  
consorcio de transportes de bizkaia

	<b>Txartel arrunta</b>	<b>Barik txartela (Creditans eta Gizatrans)</b>	<b>Bonuak (Bidai 50, Bidai 70, BidaiOro, Gazte 70 eta Gazte Oro).</b>
Urtarrilaren 13ra arte	% 100	% 50*	% 50
Urtarrilaren 14tik 8/2023 ELDan oinarritutako deskontu berria indarrean sartu arte	% 100	% 100*	% 80
8/2023 ELDan oinarritutako deskontua indarrean sartzen denetik aurrera eta urtebetez	% 100	% 50	% 50

\*Bizkaiko Garraio Partzuergoak araututako tituluetan.

#### **Kronologia:**

2023ko azaroaren 7an: Garraio publikoaren erabilera sustatzeko foru-plana aurkeztu zen. Plan horretan honako neurri hauek hartzea aurreikusi zen: ohiko bidaiariek erabilitako bonuetan deskontuak aplikatzea, garraio-aldaketen ordainketa ezabatzea, tarifikazio-zonak murriztea eta garraio-sistema tarifa-integratziora bideratzea.

2023ko abenduaren 26an: BGPren kontseiluak, arestian aipatutako foru-planean oinarrituta, % 20ko deskontua aplikatzea onetsi zuen (Bizkaiko Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak finantzatuta) garraio publikoko bonuen erabiltzaileentzat.

2023ko abenduaren 28an: 8/2023 Errege Dekretua argitaratu zen. Horren bidez, 2024. urte osorako luzatu zen hiriko eta hiriarteko garraio publikoko bono eta bidaia anitzeko tituluetan prezioaren % 50 murrizteko sustatutako zuzeneko dirulaguntzak.

2023ko urtarrilaren 4an: Bizkaiko Garraio Partzuergoak premiazko eta ezohiko bilera egin zuen % 50eko hobaria aplikatzeko bai Barik txarteleko diru-tituluetan bai aldi baterakoetan, modu horretan 8/2023 ELDan argitaratutako neurria jasotzeko.